

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OGASUN ETA FINANTZA SAILA

4987

AGINDUA, 2025eko azaroaren 17koa, Ogasun eta Finantzetako sailburuarena, Ogasun eta Finantza Saileko behin-behineko langile baten kargu-uztea xedatzen duena.

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.5 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargu-uztea sinatzen dut:

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- D. Luis Barreiro Asumendi jauna Ogasun eta Finantza Saileko Kabineteari laguntzeko aholkulari kargutik kentzea (kodea: 5294; dotazioa: 2; zuzendari-maila), eta egin duen lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.- Kargu-uzteak 2025eko azaroaren 21etik aurrera izango ditu eraginak.

Hirugarrena.- Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean; bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko azaroaren 17a.

Ogasun eta Finantzetako sailburua,
NOËL D'ANJOU OLAIZOLA.